Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Ingurumen Saila
Departamento de Medio Ambiente

**ETXEBARRIA ETA MARKINA-XEMEINGO PLANGINTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA PUNTUALAREN INGURUMEN EBALUAZIO ESTRATEGIKORAKO ERREFERENTZIAKO DOKUMENTURAKO PROPOSAMENA, A SAKABANATUA MOTAKO INDUSTRIAKO HIRI EREMUARI, FAGOR ARRASATE, DAGOKIONA.**

**1.- AURREKARIAK**

EAEko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren I A) eranskinean, ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura bete behar duten planen eta programen zerrenda eskaintzen da. Horren arabera, administrazio prozedura hori bete behar dute prozedura hori bete behar duten planen aldaketek, besteak beste Plan Orokorrek, baldin eta ingurumenean eragin esanguratsua izan ahal badute.

Zenbait planek eta programek ingurumenean dituzten ondorioak ebaluatzeko apirilaren 28ko 9/2006 Legeko 9. artikuluan eta plan eta programen ingurumeneko eragin estrategikoaren prozedura arautu zuen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuan ezarritakoari jarraiki, Ingurumen Iraunkortasunaren Txostenaren (IIT) norainokoa, xehetasun-maila eta espezifikotasun-maila ingurumen organoak zehaztuko ditu, eragina jasandako administrazio publikoak eta interesdunak identifikatu eta horiei kontsulta egin ondoren, erreferentziazko agiria bidali ondoren. Agiri horrek, gainera, ingurumen-irizpide estrategikoak eta ingurumenaren helburuen adierazleak jasoko ditu, bai eta kasu bakoitzean aplika daitezkeen iraunkortasun-printzipioak ere. Era berean, ingurumeneko organoak informazio- eta kontsulta-modalitateak zehaztu beharko ditu.

**PROPUESTA DE DOCUMENTO DE REFERENCIA PARA LA EVALUACIÓN AMBIENTAL ESTRATÉGICA DE LA MODIFICACIÓN PUNTUAL DE LAS NORMAS SUBSIDIARIAS DE PLANEAMIENTO DE ETXEBARRIA Y MARKINA-XEMEIN RELATIVA AL ÁREA URBANA INDUSTRIAL TIPO A DISEMINADA, FAGOR ARRASATE.**

**1.- ANTECEDENTES**

De conformidad con el Anexo I A) de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, general de protección del medio ambiente del País Vasco, que establece la lista de planes y programas sometidos al procedimiento de evaluación ambiental estratégica, serán sometidos a este procedimiento administrativo las modificaciones de los planes sometidos al mismo, entre ellos los Planes Generales, que puedan tener efectos significativos sobre el medio ambiente.

En virtud de lo establecido en el artículo 9 de la Ley 9/2006 de 28 de abril, sobre evaluación de los efectos de determinados planes y programas en el medio ambiente y en el Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas, el alcance, nivel de detalle y el grado de especificidad del Informe de Sostenibilidad Ambiental (ISA) se determinará por el Órgano ambiental, tras identificar y consultar a las Administraciones Públicas afectadas y al público interesado, mediante la emisión de un Documento de Referencia que incluirá además los criterios ambientales estratégicos e indicadores de los objetivos ambientales y principios de sostenibilidad aplicables en cada caso. Asimismo, el Órgano ambiental deberá definir las modalidades de información y consulta.

Ondorioz, Ingurumen Foru Sail honek, EAEko Ingurumenaren Babesari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 44. artikuluak ematen dizkion eskumenak erabiliz eta Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautu zuen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuarekin bat etorriz, erreferentziazko dokumentua eman du, soilik ingurumen ondorioetarako eta Etxebarria eta Markina-Xemein udalerrien plangintzako Arau Subsidiarioen (AASS) aldaketa puntualari dagokionez, A sakabanatua motako industriako hiri eremuari, Fagor Arrasate, dagokiona.

En consecuencia, corresponde al Departamento Foral de Medio Ambiente, en el ejercicio de las atribuciones conferidas por el artículo 44 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, general de protección del medio ambiente del País Vasco, y de acuerdo, asimismo, con el Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas, formular el presente Documento de Referencia, a los solos efectos ambientales y en relación con la Modificación Puntual de la Normas Subsidiarias (NNSS) de Planeamiento de los municipios de Exebarria y Markina - Xemein relativa al área urbana industrial tipo A diseminada, Fagor Arraste.

## 2.- EGINDAKO KONTSULTAK

Etxebarriako Udaleko alkateak aipatutako gaiaren ingurumeneko ebaluazio estrategikoaren izapidea hasteko eskatu zuen, Aldundiko Ingurumen Saileko erregistroan 2013ko urriaren 30ean sartu zen idazkiaren bidez.

Honako erakunde eta entitateei kontsulta egin zaie, aurretiko kontsulta-izapidean, 9/2006 Legearen 9. artikuluan eta 211/2012 Dekretuan ezarri bezala:

- Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritzako Zuzendaritza Nagusia.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saileko Zuzendaritza Nagusia.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Bide Azpiegituren Zuzendaritza Nagusia.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Hirigintza eta Udal Harremanen Zuzendaritza Nagusia.

## 2.- CONSULTAS REALIZADAS

El Alcalde del Ayuntamiento de Exebarria, con fecha de entrada en el registro del Departamento Foral de Medio Ambiente de 30 de octubre de 2013, solicita el inicio del trámite de evaluación ambiental estratégica del asunto referenciado.

Los siguientes organismos y entidades han sido consultados durante el trámite de consultas previas establecido en el artículo 9 de la Ley 9/2006 y del Decreto 211/2012:

- Dirección General de Agricultura de la Diputación Foral de Bizkaia.
- Dirección General de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia.
- Dirección General de Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Bizkaia.
- Dirección General de Relaciones Municipales y Urbanismo de la Diputación Foral de Bizkaia.

- Bizkaiko Foru Aldundiko Natur Ondareko Zerbitzua.
- EHNE. Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna – Unión de Agricultores y Ganaderos Vascos.
- Euskal Nekazarien Batasuna – ENBA Bizkaia.
- Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Saila.
- Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Saila.
- Lurralde Plangintzako eta Hirigintzako Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Saila.
- Kultura Ondarearen Zuzendaritza, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Eusko Jaurlaritza.
- Landa eta Kosta Garapeneko eta Europako Politiketako Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritzako Garapen Ekonomikoko eta Lehiakortasuneko Saila.
- Larrialdiei Aurregiteko eta Meteorologia Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila.
- Osasun Sailburuordetzaren Bizkaiko Lurralde Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila.
- IHOBE, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa. Eusko Jaurlaritza.

- Servicio de Patrimonio Natural de la Diputación Foral de Bizkaia.
- EHNE. Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna – Unión de Agricultores y Ganaderos Vascos.
- Euskal Nekazarien Batasuna – ENBA Bizkaia.
- Dirección de Medio Natural y Planificación Ambiental del Departamento de Medio Ambiente y Política Territorial del Gobierno Vasco.
- Dirección de Administración Ambiental del Departamento de Medio Ambiente y Política Territorial del Gobierno Vasco.
- Dirección de Planificación Territorial y Urbanismo del Departamento de Medio Ambiente y Política Territorial del Gobierno Vasco.
- Dirección de Patrimonio Cultural del Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura del Gobierno Vasco.
- Dirección de Desarrollo Rural y Litoral y Políticas Europeas del Departamento de Desarrollo Económico y Competitividad del Gobierno Vasco.
- Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología del Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco.
- Dirección Territorial de Bizkaia de la Viceconsejería de Sanidad, Departamento de Sanidad, Gobierno Vasco.
- IHOBE, Sociedad Pública de Gestión Ambiental. Gobierno Vasco.

- URA. Uraren Euskal Agentzia. Eusko Jaurlaritza.
- Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
- Ekologistak Martxan.
- Lea-Artibai Amankomunazgoa / Mancomunidad de Lea-Artibai.

Ingurumen-izapideari ekiteko egin den dokumentua administrazio publiko ukituei eta publiko interesdunari kontsultak bideratzeko erabili da. Era berean, dokumentua Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean (http://www.bizkaia.net/evaluacion) eta bi egunkari oso zabaldutan argitaratu da, helburu berarekin.

Indarrean dagoen sektoreko araudiak ezartzen duen epea igaro ondoren, honako entitate hauen erantzunak jaso dira:

- IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak jakinarazi du hasierako dokumentuan kontuan izan dela historikoki erabilera industrialak izan dituzten lur-zatiak daudela eta horregatik lurra kutsatu ahal izan dela. Horrenbestez, hori arriskua izan daiteke balizko erabiltzaileentzat edota ingurumenarentzat. Kokaleku hori irailaren 30eko 165/2008 Dekretuan dago, lurzorua kutsatu ahal duten jarduerak edo instalazioak dauzkaten edo eduki ahal dituzten lurzoruen inbentarioari buruzkoa. Kasu honetan, 48030-00001 kodea daukan lur-zatia, industria metalurgikorako makinak fabrikatzeko jarduera eduki duena. Horregatik, IHOBEren txostenean adierazten da lurzoruaren kalitatearen adierazpena izapidetu behar dela baldin eta, besteak beste, kutsagarria izan daitekeen jarduera edo instalazio bat

- URA Agencia Vasca del Agua. Gobierno Vasco.
- Consorcio de Aguas de Bilbao.
- Ekologistak Martxan.
- Lea-Artibai Amankomunazgoa / Mancomunidad de Lea-Artibai.

El documento elaborado para el inicio del trámite ambiental, ha sido el utilizado para evacuar consultas a las Administraciones Públicas afectadas y al público interesado. Asimismo el documento ha sido publicado en la página web de la Diputación Foral de Bizkaia (http://www.bizkaia.net/evaluacion) y en dos periódicos de amplia tirada con el mismo fin.

Finalizado el plazo estipulado por la normativa sectorial vigente, han sido recibidas las respuestas de las siguientes entidades:

- La Sociedad Pública de Gestión Ambiental IHOBE informa de que el Documento de Inicio sí ha considerado la existencia de parcelas que han soportado históricamente usos industriales que han podido contaminar el suelo y por tanto pueden suponer un riesgo para los futuros usuarios y/o el medio ambiente. Dicho emplazamiento se encuentra incluido en el Decreto 165/2008, de 30 de septiembre, de Inventario de suelos que soportan o han soportado actividades o instalaciones potencialmente contaminantes del suelo, en este caso la parcela con el código 48030-00001, que ha soportado la actividad de fabricación de maquinaria para la industria metalúrgica. Por ello, sigue señalándose en el Informe de IHOBE, será necesaria la tramitación de una Declaración de calidad de suelo en el caso de, entre

daukaten edo eduki duten lurzoruen kalifikazioa aldatzen denean. Zentzu horretan, inbentariatutako kokaleku batean esku hartzerik egin baino lehen, lurzoruaren kalitateaz ikerketa egitea exijitu behar da.

- Izaskun Egia Barruetabeña andreak eta Iñigo Etxebarria Larrañaga jaunak, Ingurumen Sail honetan 2013ko abenduaren 12an jasotako idazkiaren bidez, interesdun gisa agertu ziren AASSen aldaketarekin egiten ari zen ingurumen ebaluazio estrategikoko prozeduran. Idazkian ondoko alegazio hauek egin zituzten:
  - Haien ustez, ingurumen izapidea hasteko egin zen dokumentuaren edukia ez da 211/2012 Dekretuan exijitzen dena.
  - Dokumentazio grafikoan ageri diren azalera ukituak ez dira dokumentazio idatzian ageri direnak.
  - Ez da datu gehiagorik aurkeztu ukitutako lurzoruen hirigintzako araubideari buruz. Beraz, alegazio egileen ustez, ezin da proiektatutako jarduketari dagokion ingurumen eragina bere osotasunean baloratu.
  - Aldaketak ukitutako eremuaren ingurumen analisi bat egin dute. Beraien ustez jarduketaren sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan aztertu ez diren alderdiak azpimarratu dituzte.
  - Aldaketa jasan duten lurren hirigintzako eraldaketa

otros, cambio de calificaciones de suelos que soporten o hayan soportado una actividad o instalación potencialmente contaminante. En este sentido, antes de que se proceda a cualquier intervención sobre un emplazamiento inventariado, será necesario exigir la realización de una investigación de la calidad del suelo.

- D. Izaskun Egia Barruetabeña y D. Iñigo Etxebarria Larrañaga en escrito recibido en este Departamento de Medio Ambiente con fecha 12 de diciembre de 2013, se personan como interesados en el procedimiento de evaluación ambiental estratégica que se sigue de la Modificación de las NNSS. En su escrito efectúan las siguientes alegaciones:
  - A su entender el contenido del documento elaborado para el inicio del trámite ambiental no es el exigido en el Decreto 211/2012.
  - Existen disparidades entre las superficies de afección reflejadas en la documentación gráfica y en la escrita.
  - No se aportan datos adicionales sobre el régimen urbanístico de los suelos afectados, lo que a entender de los alegantes impide valorar en toda su dimensión el impacto ambiental inherente a la actuación proyectada.
  - Efectúan un análisis ambiental del ámbito afectado por la Modificación, haciendo hincapié en aspectos que a su entender no quedan analizados en la documentación aportada por el Promotor de la actuación.
  - Consideran improcedente la transformación urbanística de los

bidegabekoa dela uste dute. Bereziki aipatu dituzte ukitutako lurzoruen nekazaritzarako balio handia, Lurraldea Antolatzeko Arauen erabileren arauketa matrizea azaleko uren babeserako eremu urbaniza ezinetan, eta proposamenaren onespenak Etxebarria eta Markina-Xemein udalerrietan indarrean dagoen plangintzarekin ekarriko lukeen haustura. Adierazi dute proposatutako hazkuntza bideraezina izango litzatekeela eta garapen iraunkorraren printzipioen kontrakoa izango litzatekeela. Txostena amaitzeko, planteatzen den hirigintzako jarduketaren aurkako txostena eskatu dute.

- Bilboko Uren Partzuergoak jakinarazi du jarduketa eremuan ez dagoela berari dagokion sare primarioko instalaziorik, eta ez dagoela premia berririk eska daitezkeen edo hornidura eta saneamenduko hurbileko sareetan eragina izan dezaketen baliabide eta isuriei dagokienez; horrenbestez, ez daukate eragozpenik espedienteari dagokionez.

Zenbait plan eta programak ingurumenean duten eraginaren ebaluazioari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legearen 9. artikuluko agindua betez, administrazio publiko gisa identifikatu dira kontsulta egin zaien erakundeak, eta herritar interesdun gisa identifikatu dira ingurumen iraunkortasunaren txostenaren irismena zehazteko fasean agertu diren pertsonak. Era berean, agerrarazi da txosten honen edukia publikoa dela.

Indarrean dagoen sektoreko legerian ezarritako kontsulta-izapidean jaso diren

terrenos objeto de la Modificación, haciendo especial mención al alto valor agrológico de los suelos afectados, a la matriz de regulación de usos de las Directrices de Ordenación del Territorio para las áreas no urbanizables de protección de las aguas superficiales y a la quiebra que su aprobación supondría la propuesta con el planeamiento vigente en los municipios de Exebarria y Markina - Xemein. Señalan que el crecimiento propuesto sería inviable y se situaría en las antípodas de los principios de desarrollo sostenible. Concluyen el informe solicitando la emisión de un informe negativo a la actuación urbanística que se platea.

- Desde el Consorcio de Aguas de Bilbao se informa de que en el área de actuación no existen instalaciones de la red primaria a él pertenecientes, así como que no existen nuevas necesidades en cuanto a recursos y vertidos que pudieran demandarse o afectar sus redes próximas de abastecimiento y saneamiento, por lo que no existe ninguna objeción por su parte en relación con el expediente.

En cumplimiento del mandato del artículo 9 de la Ley 9/2006, de 28 de abril, sobre evaluación de determinados planes y programas en el Medio Ambiente, quedan identificadas como Administraciones Públicas afectadas los organismos consultados y como público interesado el que se ha personado en la fase de determinación del alcance del Informe de Sostenibilidad Ambiental. Igualmente se hace constar que el contenido del presente informe es público.

Una vez analizada la documentación aportada, así como el contenido de las

erantzunen edukia eta aurkeztutako agiriak aztertu ondoren, jarduketa eremuan bisita egin eta gero, erreferentzia-agiri hau ematen da.

**3.- AURREIKUSITAKO JARDUKETEN EZAUGARRI NAGUSIAK.**

Markina - Xemein eta Etxebarria udalerrietako AASSen aldaketaren xedea Fagor Arrasate S. Coop.en industriako planta bat handitzea ahalbideratzea da. Horretarako, industriako hirilurra handitzea beharrezkoa da.

Jarduketaren sustatzaileak emandako dokumentazio grafikoaren arabera, aldaketak lurraren azalera hauetan dauka eragina:

Etxebarria udalerrian:

- gaur egun industriako hirilur gisa sailkatuta dauden lurren 21.085,23 m$^2$ eta espazio libreen sistema orokorreko 3.763,64 m$^2$.
- BI-4404 errepidearen jabari publikoko lurren 188,50 m$^2$.
- BI-4404 errepidearen hegoaldean dauden eta jabari publiko hidraulikoan dauden 222,92 m$^2$.
- Industriako plantaren iparraldean dauden lurzoru urbaniza ezineko 4.484,80 m$^2$, gehienak abeltzaintzarako zonakatuak eta batzuk azaleko uren babesekoak.

Markina-Xemein udalerrian:

- Lurzoru urbaniza ezineko 495 m$^2$

respuestas recibidas durante el trámite de consultas establecido en la legislación sectorial vigente y girada visita al ámbito de actuación, se emite el presente Documento de Referencia.

**3.- CARACTERÍSTICAS PRINCIPALES DE LAS ACTUACIONES PREVISTAS.**

El objeto de la Modificación de las NNSS de los municipios de Markina - Xemein y Etxebarria es posibilitar la ampliación de una planta industrial propiedad de Fagor Arrasate S. Coop., para lo que se precisa de la ampliación correspondiente de Suelo Urbano Industrial.

Según la documentación gráfica aportada por el Promotor de la actuación, la Modificación afecta a las siguientes superficies de terreno:

En el municipio de Etxebarria:

- 21.085,23 m$^2$ de suelos actualmente clasificados como Suelo Urbano Industrial y 3.763,64 m$^2$ de Sistema General de Espacios Libres.
- 188,50 m2 de terrenos que forman parte del dominio público de la carretera BI-4404.
- 222,92 m2 de terrenos situados al sur de la carretera BI-4404 integrantes del Dominio Público Hidráulico.
- 4.484,80 m2 de Suelo No Urbanizable situados al norte de la planta industrial, en su mayor parte zonificados como de uso ganadero y en parte también como de protección de aguas superficiales.

En el municipio de Markina - Xemein:

- 495 m2 de Suelo No Urbanizable con

abeltzaintza erabilerarekin, Markina-Xemein udalerriko landa lurreko katastroko 7. poligonoko 40. katastro lur-zatian.

Horrekin guztiarekin A sakabanatua motako industriako hiri eremua, Fagor Arrasate, izeneko aldea osatzen da, 30.017,17 $m^2$ko azalerarekin. Azalera horretatik 5.683,46 $m^2$ espazio libreak dira.

Lur-zatiaren eraikigarritasuna 0,5 $m^2/m^2$ da eta gehieneko azalera eraikigarria 15 metrokoa da. Halere, agintzen da muga hori gainditu ahal dela, baldin eta produkzio prozesuak hala exijitzen badu, eta hori teknikoki frogatzen bada.

**4.- PLANARI APLIKATU BEHARREKO IRAUNKORTASUN PRINTZIPIOAK, INGURUMEN HELBURUAK, INGURUMEN IRIZPIDE ESTRATEGIKOAK ETA ADIERAZLEAK.**

**4.1.-Iraunkortasunaren oinarriak.**

Ondorengo iraunkortasun printzipioak Markina-Xemein eta Etxebarriako AASSen aldaketa zehatza gauzatzeko funtsezko oinarri hartuko dira:

a).-Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020).

b).-Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumenari buruzko Esparru Programa 2011-2014.

c).-Bizkaiko Foru Aldundiaren Bizkaia 21 Egitasmoa.

d).-Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legeko 2. artikulua.

e).-2/2011 Legea, martxoaren 4koa,

uso ganadero de la parcela catastral número 40 del polígono 7 del catastro de rústica del municipio de Markina - Xemein.

Con todo ello se conforma un área denominada Área Urbana Industrial Tipo A Diseminada, Fagor Arrasate, con una superficie de 30.017,17 $m^2$, de los que 5.683,46 $m^2$ serán de espacios libres.

La edificabilidad de la parcela se establece en 0,5 $m^2/m^2$s y la altura máxima edificable en 15 metros, si bien se establece una premisa según la cual la misma podrá superarse en aquellos casos en los que así lo exija el proceso productivo debidamente justificado a nivel técnico.

**4.- PRINCIPIOS DE SOSTENIBILIDAD, OBJETIVOS AMBIENTALES, CRITERIOS AMBIENTALES ESTRATÉGICOS E INDICADORES APLICABLES AL PLAN.**

**4.1.- Principios de sostenibilidad.**

Se tomarán como base fundamental para la Modificación Puntual de las NNSS de Markina– Xemein y Etxebarria los principios de sostenibilidad contenidos en:

a) La Estrategia Ambiental Vasca de Desarrollo Sostenible 2002-2020.

b) El Programa Marco Ambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco 2011-2014.

c) El Programa Bizkaia 21 de la Diputación Foral de Bizkaia.

d) El artículo 2 de la Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad.

e) La Ley 2/2011, de 4 de marzo, de

Ekonomia Iraunkorrari buruzkoa.

f).-Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legearen 6. artikulua.

g).-Lurzoruaren Legearen testu bategina onesten duen ekainaren 20ko Legegintzako 2/2008 Errege Dekretuaren 2. eta 10. artikuluak.

h).-Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 2., 5., 23., 25., 28., 30., 69. eta 83. artikuluak.

i).-Euskal Autonomia Erkidegoko natura zaintzeari buruzko ekainaren 30eko 16/1994 Legeko 2. artikulua.

j).-Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legeko 3. artikulua.

k).-Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 3. artikulua.

l).-17/2008 Legea, abenduaren 23koa, nekazaritza eta elikadura politikari buruzkoa.

m).-Euskal Kulturaren Ondarearen 7/1990 Legea.

n).-Plan eta programen ingurumen ebaluazio estrategikorako prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 1. eta 2. artikuluak.

**4.2.- Ingurumen helburuak.**

Aldaketaren sustatzaileak aurkeztu duen hasiera dokumentuko ingurumen helburuez gain, ondoko hauek izan beharko dira kontuan:

- Egin beharreko jarduketek ingurunearen kalitatea hobetu behar

economía sostenible.

f) El artículo 6 de la Ley 37/2003, de 17 de noviembre, del ruido

g) Los artículos 2 y 10 del Real Decreto Legislativo 2/2008, de 20 de junio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Suelo.

h) Los artículos 2, 5, 23, 25, 28, 30, 69 y 83 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco.

i) El artículo 2 de la Ley 16/1994, de 30 de junio, de conservación de la naturaleza del País Vasco.

j) El artículo 3 de la Ley 1/2006, de 23 de junio, de aguas.

k) El artículo 3 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de suelo y urbanismo.

l) La Ley 17/2008, de 23 de diciembre, de política agraria y alimentaria.

m) La Ley 7/1990, de patrimonio cultural vasco.

n) Los artículos 1 y 2 del Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas.

**4.2.- Objetivos ambientales.**

Además de los objetivos ambientales que se establecen en el Documento de Inicio aportado por el Promotor de la Modificación, habrán de adoptarse los siguientes:

- Las actuaciones a llevar a cabo deberán redundar en una mejora de la

dute, eta ingurune osasuntsu bat lortzen lagundu. Arriskuak eragotzi behar dira, batez ere ura eta lurra kutsatzea.

- Baldintza ekologiko orokorrak, dibertsitate ekologikoarenak eta paisaiarenak hobetzea. Kontserbaziorako interesgarriak diren habitatak babestu eta hobetzea.
- Ur masen egoera ekologiko ona lortzea: aldaketaren eremua zeharkatzen duten ur-ibilguen gaineko eragina murriztea, eta ibilgu horien egoera kimiko eta ekologikoa hobetzea.
- Balio estrategiko handiko lurzoruak artifizializazioaren ondorioz galtzea gutxitzea.
- Industria-jarduera areagotzeak pertsonentzat sor ditzaketen eragozpenak (zarata, ibilgailu astunen trafikoa, usainak eta abar) asko ez gehitzea, batez ere industria-eremutik hurbilen bizi diren pertsonentzat.

calidad del medio y en la consecución de un entorno vital saludable, evitando los riesgos asociados, especialmente los ligados a la contaminación de las aguas y los suelos.

- Mejorar las condiciones ecológicas generales, de la diversidad biológica y del paisaje. Proteger y mejorar los hábitats de interés para la conservación.
- Obtener el buen estado ecológico de las masas de agua: minimizar la afección a los cauces que atraviesan el ámbito de la Modificación y mejorar su estado químico y ecológico.
- Minimizar la perdida por artificialización de suelos de alto valor estratégico.
- Evitar incrementos significativos en las molestias (ruido, tráfico de vehículos pesados, olores, etc.) que pueda generar la ampliación de la actividad industrial sobre las personas, especialmente sobre las que habiten en el entorno más cercano al área industrial.

**4.3.- Ingurumenari buruzko irizpide estrategikoak.**

Hirigintzako jarduketa diseinatzean eta formulatzean, aztertu den hasiera dokumentuan dauden ingurumeneko helburuez gain eta aurretik aipatu direnez gain, ondoko ingurumeneko irizpide estrategikoak kontuan izan beharko dira:

- Errekarako planteatzen diren jarduketak haren egoera ekologikoa hobetzeko asmoz proposatu behar dira. Errekaren egoera lehengoratzen laguntzen dutenei lehentasuna

**4.3- Criterios ambientales estratégicos.**

En el diseño y formulación de la actuación urbanística, además de los objetivos ambientales recogidos en el Documento de Inicio analizado y los anteriormente incluidos, habrán de tenerse en cuenta los siguientes criterios ambientales estratégicos:

- Las actuaciones planteadas sobre el arroyo deberán ir encaminadas a la mejora de su estado ecológico, priorizándose aquéllas que posibiliten acercar sus condiciones a

emango zaie.

- Hirigintzako jarduketaren diseinua arautu behar duen oinarrizko ingurumen irizpide estrategikoa zona honetan dauden habitatak mantentzea edo hobetzea izan behar da, baita uraren kalitatea zaintzea ere.

- Aldaketaren eremu honetako ekialdean, Makotegitxikia errekaren erriberetan zuhaitzak daude, batez ere haritzak eta haltzak. Landare-estaldura horren funtzioa, ekologiako eta paisaiako beste funtzio batzuen artean, handitu nahi den instalazioan egiten den industria-jardueratik eratorri ahal diren ondorioak, ibaiaren gainean, bereiztea eta arintzea da. Horregatik, landare-estaldura horren gaineko eraginak saihesteko neurri egokiak hartzea beharrezkotzat jotzen da.

- Jarduketaren sustatzaileak aurkeztutako hasiera dokumentuan azaltzen denez, etorkizunean ingurumena leheneratzeko proiektua idatziko da. Ingurumen ebaluazioko prozeduraren ondoko faseetan, ingurumena lehengoratzeko dokumentu tekniko horretan jarri nahi diren ingurumena birsortzeko eta naturalizatzeko jarduketak definitu beharko dira.

Jarduketa horiek, besteak beste, zuhaitz eta zuhaixka espezie autoktonoak birlandatzean gauzatu behar dira, berdegune gisa aurreikusitako lekuetan, eta

las de su estado original.

- El criterio ambiental estratégico básico que ha de regir en el diseño de la actuación urbanística será el de favorecer el mantenimiento o en su caso la mejora de los hábitats presentes en la zona, así como el de preservar la calidad de las aguas.

- En el extremo este del ámbito de la Modificación, en las riberas del arroyo Makotegitxikia, crece una orla de vegetación arbórea formada principalmente por robles y alisos. Dicha cubierta vegetal, entre otras funciones ecológicas y paisajísticas, contribuye a separar y amortiguar los efectos que sobre el ambiente fluvial pueden derivarse de la actividad industrial que se lleva a cabo en la instalación que se plantea ampliar. Por este motivo se considera necesaria la adopción de las medidas que se estimen necesarias para evitar cualquier tipo de afección sobre dicha cubierta vegetal.

- Según se señala en el Documento de Inicio aportado por el Promotor de la actuación, en un futuro se redactará un Proyecto de restauración ambiental. En fases posteriores del procedimiento de evaluación ambiental deberán definirse las actuaciones de naturalización y regeneración ambiental que se plantean plasmar en dicho documento técnico de recuperación ambiental.

Dichas actuaciones debieran concretarse, entre otras, en revegetaciones en base a especies arbóreas y arbustivas autóctonas en los lugares previstos como zonas

ingurunean dauden landaretza-formazioekin lotzen saiatu. Espezie aloktono inbaditzaileen balizko agerpenaren aurrean erne egon behar da. Beharrezkoa bada, espezie horiek kentzeko eta desagerrarazteko jarduketak egingo dira.

- Aldaketaren ingurunearen barruan, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioaren irailaren 30eko 165/2008 Dekretuan jasotako kokaleku bat jasotzen da. IHOBEk kontsultari emandako erantzunean azaldu duenez, eta lurraren kutsadura prebenitzeko eta zuzentzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legeak azaltzen duenez, lurraren kalitatearen adierazpena izapidetu beharko da inbentariatutako eremuaren kalifikazioa aldaketa egiteko.

Horregatik, esku hartzerik egin baino lehen, lurraren kalitatearen inguruko ikerketa egin beharko da, lurraren kutsaduraren inguruko arriskurik ez dagoela bermatzen duena. Gainera, utzitako hondakinak, eraikinak eta hondeatu behar diren lurrak behar bezala kudeatzeko exijituko da, hondakinei buruz indarrean dagoen legeriaren arabera.

- Hirigintzako aldaketak ukitzen duen eremua alde akustiko baten barruan egon behar da, alde akustikoak urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan (Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzkoan) definitzen diren moduan. Era berean,

verdes, procurando su conexión con las formaciones vegetales presentes en el entorno. Habrá de prestarse especial atención a la posible aparición de especies alóctonas invasoras, adoptándose en caso de estimarse necesario actuaciones de eliminación y erradicación.

- Dentro del entorno de la Modificación se encuentra un emplazamiento recogido en el Decreto 165/2008, de 30 de septiembre, de inventario de suelos que soportan o han soportado actividades o instalaciones Potencialmente contaminantes del suelo. Tal y como informa IHOBE en su respuesta a la consulta efectuada, y tal y como señala la Ley 1/2005, de 4 de febrero, para la prevención y corrección de la contaminación del suelo, será necesaria la tramitación de la Declaración de calidad del suelo al pretenderse el cambio de calificación del ámbito inventariado.

Por ello, antes de proceder a cualquier intervención, se exigirá la realización de una investigación de la calidad del suelo que garantice que no existen riesgos asociados a la contaminación del suelo, así como la gestión adecuada de los residuos abandonados, edificaciones y posibles tierras a excavar de acuerdo a la legislación vigente en materia de residuos.

- El ámbito afectado por la Modificación urbanística se deberá adscribir a un área acústica, tal y como éstas se definen en el Decreto 213/2012, de 16 de octubre, de contaminación acústica de la Comunidad Autónoma del País

etorkizuneko hirigintzako garapena den aldetik, aipatutako dekretuaren III. tituluko II. kapituluan azaldutakoa kontuan izan behar da, eta foku emisore akustiko berririk badago, III. tituluko IV. kapituluan ezarritakoa, batez ere aplikatu beharreko muga-balioekin zerikusia duen guztian.

- Hirigintzako aldaketak Nekazaritza eta Basogintzako Lurraldearen Arloko Planean (Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren 2010eko azaroaren 8ko aginduaren bidez behin-behinean onetsian) balio estrategiko handiko lurtzat jotzen diren lurrak birsailkatzea proposatzen du. Horregatik, espedientea izapidetzean, nekazaritzan eskuduna den foru organoak eman beharreko txostena sartu behar da, aldaketa behin betiko onetsi baino lehen, jarduketaren eragina baloratzeko, nekazaritza eta elikadura politikari buruzko abenduaren 23ko 17/2008 Legean azaltzen denez.

Vasco. Asimismo, en su condición de futuro desarrollo urbanístico, habrá de atenderse a lo señalado en el Capítulo II del Título III del Decreto mencionado, y en caso de existir nuevos focos emisores acústicos, a lo estipulado en el Capítulo IV de su Título III, especialmente en lo que tiene que ver con los valores límites aplicables.

- La Modificación urbanística plantea la reclasificación de suelos considerados como de Alto Valor Estratégico en el Plan Territorial Sectorial Agroforestal, aprobado provisionalmente por Orden de 8 de noviembre de 2010 de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco. Por ello, en la tramitación del expediente, habrá de incluirse un informe a emitir por el Órgano foral competente en materia agraria con carácter previo a la aprobación definitiva de la Modificación, valorando la repercusión de la actuación, tal y como se señala en la Ley 17/2008, de 23 de diciembre, de política agraria y alimentaria.

**4.4.- Ingurumen adierazleak.**

Ingurumeneko adierazle gisa EAEko ingurumen adierazleen sistemak garatzen dituenak erabil daitezke, jarduketaren eremu zehatzari eta eskalari egokituak. Adierazle horiek Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren webgunean daude (http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-orokorra/es/contenidos/estadistica/ing_adzl/es_ingadzl/ing_adzl_pma07_10.html). Bizkaiko udalerrietako iraunkortasun adierazleen sistema ere erabil daiteke

**4.4.- Indicadores ambientales.**

Como indicadores ambientales se pueden utilizar aquellos desarrollados por el sistema de indicadores ambientales de la CAPV, adaptados al ámbito concreto de actuación y a la escala de la misma, disponibles en la página web del Departamento de Medio Ambiente y Política Territorial del Gobierno Vasco (http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-orokorra/es/contenidos/estadistica/ing_adzl/es_ingadzl/ing_adzl_pma07_10.html) o el

bestela, (http://www.bizkaia21.net/interior.asp?idpagina=18); horiek aldaketa puntuala eta beraren ebaluazioa idazteko erabil daitezke (hori ingurumen iraunkortasuneko txostenean baloratu beharko da).

**5.- INGURUMEN INTERES BEREZIKO BALIABIDEAK ETA ESPAZIOAK ETA HORIEK BABESTEKO HELBURUAK.**

Jarraian, proposatuko eremuan dauden ingurumen-garrantziko baliabide eta espazioak nabarmentzen dira:

a).-Jabari Publiko Hidraulikoa eta horren zortasun aldeak eta polizia eremua, Uren Legearen Testu Bateginak eta haren garapenerako araudiak arautua.

Sustatzaileak bidalitako dokumentazioan azaltzen denez, industriako jarduera zabaltzeko, beharrezkoa izan daiteke Makotegitxikia errekaren gaur egungo bidea aldatzea. Erreka hori gaur egun ipar-mendebaldeko izkinatik sartzen da eragin-eremuan. Gaur egungo fabrika-instalazioak lurpetik zeharkatzen ditu eta eremuaren ipar-ekialdeko izkinatik irteten da berriro lurrazalera. 120 metrora bakarrik ematen du Muniberreka errekara, azkenik Artibaira doana. Erreka hau 0 mailakoa da EAEko Ibai eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean. Antolaketa dokumentu horretan ezarritako preskripzioetara egokitzeaz gain, aurreikusitako jarduketaren diseinuak erreka horren bidea azken antolaketan txertatu behar du, betiere haren egoera ekologikoaren hobekuntza mesedetuz eta degradazio gehigarriak ekidinez.

Sistema de Indicadores de sostenibilidad de los municipios de Bizkaia, (http://www.bizkaia21.net/interior.asp?idpagina=18), que puedan ser utilizables para la redacción de la Modificación Puntual y su evaluación, aspecto a valorar en el Informe de Sostenibilidad Ambiental.

**5.- RECURSOS Y ESPACIOS DE ESPECIAL INTERÉS AMBIENTAL Y OBJETIVOS DE PROTECCIÓN.**

A continuación se destacan los recursos y espacios de relevancia ambiental presentes en el ámbito propuesto:

a) El Dominio Público Hidráulico y su zona de servidumbre y zona de policía, regulados por el Texto Refundido de la Ley de Aguas y su Reglamento de desarrollo.

Según se señala en la documentación remitida por el Promotor, la ampliación de la actividad industrial puede precisar de la modificación del curso actual del arroyo Makotegitxikia, que actualmente accede al ámbito de afección por su esquina noroeste, atraviesa soterrado las actuales instalaciones fabriles y sale de nuevo a superficie en la esquina noreste del área, desembocando escasos 120 aguas abajo en el arroyo Muniberreka, que finalmente vierte en el Artibai. Este arroyo está tipificado como de Nivel 0 en el Plan Territorial Sectorial de Ordenación de los Ríos y Arroyos de la CAPV. Además de adoptarse las prescripciones establecidas en dicho documento de ordenación, el diseño de la actuación prevista deberá integrar el curso de este arroyo en la ordenación final, favoreciendo en todo caso la mejora de su estado ecológico y evitando degradaciones adicionales.

b).-Planaren eremuan, garrantzi komunitarioko habitat hauek daude gutxienez:

6510 Altitude baxuko sega-belardi elkorrak.

c).-Fauna:

